



NOR DA

**Ehari Ulazia Agirre**

29 urteko eibartarra. Kazetaria eta irakaslea da. Egun igerilekuko monitorea gisa aritzen da haur zein helduekin. Idazle Eskolako lehen maila bukatu berri du..

Irudia:  
**Kristina Fernandez**

*Ehari Ulazia Agirre*

## Ametsen paradisuatik

**H**or zaude. Irtisia zara azkenean. Joan nintzenetik hartzak neguan kobazuloetan gordetzen diren bezala ezkutatuta egon zara zure baitan, mundutik isolatzeko zure izanari giltzarrapoa botata. Harrezkero, biluztu dira zuhaitzak, loratu bazterrak, eguzkiak idortu ditu baratzen eta arropa koloretsu apainez jantzi dira mendiak... Baina zuk preso jarraitu duzu.

Bazen garaia, eta iruditzen zait zuk zeuk eraikitako kartzela horretatik ihes egiteko giltza aurkitua duzula dagoeneko; amaituak direla ilargirik gabeko gauak, eguzkiaren printzen berotasunaren ferekaren laztanak sentitu dituzula berriro. Gaurdaino zuregana heltzeko modurik izan ez du dan arren, iluntasunetik argira jauzi eginez nire falta onartu duzun honetan, gure arteko zubia eraikitzeko bidea urratu dezaket orain.

Ez pentsa, neu ere ustekabeen harrapatu ninduen martxa egin beharrak. Bat-batean behin betiko isildu ziren bihotzaren kanpai hotsak, museoetako argizari-dun figura baten antzera gogortu zitzaizkidan giharrak eta grabitatearen indarrari aurre egin ezinik aurkitu nintzen kolpe gogor batek betazalak itxiarazi zizkidanean. Amets beteko loan murgiltzeko itzulezinezko gonbita jaso nuen, ulertu behar duzu ez nuela patuak niretzat gordea zuen zoriari atxikitzea beste aukerarik izan.

Galduta gelditu zinen nire absentsian, etsita eta amorrugainezka. Ezin sinetsirik, ezin onarturik halabeharrak zuretzako horrelako alukeriarik gordeko zuenik. Nora ezean, aurrera egiteko iparrorratzirik ez zenuen antzeman inguruan. Horrelakoetan ez dago norantz jo adieraziko dizun GPSrik, ez da existitzen zurrumbilo nahasitik aterako zaituen koordenadarik. Ordura arte barea zen itsasoan igeri egiten zenuen lasai, baina alde egin nuenean ur azalean flotatzeko txaluparik gabe bezala aurkitu zenuen zeure burua.

Naufrago bilakatu zinen, urak garraztu eta zakartu zirenean ez zinen anabasa ero hartan bizirauteko igeri egiteko kapaza izan. Olatu erraldoiek behin eta berriz arroken kontra jaurti dute zure gorpu babesgabea. Kaskateko bat bestearen atzetik, eta ezin izan duzu erreakzionatu orain arte. Minaren minez bihotza su bola bat bailitzan izan duzu, azkenerako, sugar taupaden txinpartek suspertu zaituzten arte. Arnasa behar zenuen, hondotik atera eta txorien kantuen erritmora airean hegan egiteko ihesbide baten premia zeneukan.

Ez da erraza sentimenduak bideratzea, mingarria eta deserosoa da hainbeste maite duzun pertsona zure ondotik betirako joan dela pentsatzea. Nekez egin diozu aurre nire

galerari, itotzeko punturaino galdu zara itsasoaren ur sakonetan. Zugandik urrundu nintzenean mundua amaitu zen zuretzat, lanbro trinko baten pean atraturik, nora ezean, ez zenuen argi izpirik ikusten inguruan. Egia da ez zela gu banatzeko momentua eta adiorik esan gabe joan nintzela.

Denbora izan da ia odolusteraino eraman zaituen zauria osatzen lagundu dizun sendagairik eraginkorrena. Kimu bat errotik mozten denetik berri bat hazterako denborak bere bidea egin behar du, arantza bilakaturik zeuden hostoak berriro loratzen hasiak dira dagoeneko. Eta ohartua zara sukaldeko aulki hutsak hor jarraituko duela, ez naizela gehiago txistu alaiaguz agurtuz atetik sartuko. Inoiz ez da berandu, tarte honetan faltan bota bazaitut ere denboraren hariak zure esentzia itzuli dizute azkenean.

Hemendik iruditzen zait heriotzarekin elkarbizitzen jakitea dela bizitzea. Egun batean edo bestean gure ateari dandak aurkituko dugun bisitari bat besterik ez da heriotza. Hala iritsi zen nire atarira, bat-batean eta inolako jakinarazpenik gabe. Ez pentsa, ez da pintatu izan diguten bezain jazoera lazgarria. Atzean lagatako bizipenak pintzelkada koloretsuz marraztu daitezkeen koadro baten antzekoa da, eta bizitako bizitza bati azken zertzeladak emateko ahalmena ematen du heriotzak.

Lan horretan nabil ni, hor utzi ditudan guztiak margotzen ari naiz nire bizileku berrian. Ahazturik neukan zure irribarrea falta zitzaidan nire obra amaitzeko, eta azkenerako, erakutsi didazu hain luzez gorderik izan duzun irriñoa. Ez zara hain erraz nitaz libratuko, uneoro kontrolpean zauzkat; zure ondoan nago gau eta egun. Ama masailean musukatzen duzuean hor egoten naiz haren ilea laztandu bitartean zuri so, oso gustuko ditut horrelako momentuak.

Ni izan naizelako zara zu ere, eta nik izaten jarraituko dut zu zaren bitartean. Zure oroitzapenetan eta bihotzean banago soilik mantenduko naiz bizirik. Ez ezazu inoiz ahaztu. Izugarri maite zaituen betiko gizon marmarti eta burugogorra naizela oraindik ere. Zoko guztiak begiz jota dituen hegaldi dotoredun arrano baten antzera nabil bategatik bestera, betiereko loaldi batean murgildurik ametsen paradisu honetan. Eta zurekin elkartu arte amesten jarraitu nahi dut nire paradisu, ez ezazu lo gozo hau inoiz eten. Bien bitartean txikitzen egiten genuen moduan mendi ton-torretan igeri egingo dugu, eta ur gardenetan barrena ibiliko gara. Ahoarekin dantzatu bitartean oinak erabiliko ditugu abesteko, gure ametsa errealitate bihurtuz elkarrekin bizirauteko.